

# PSYKHE, NOUS - ANIMA, MENS

**Azurmendi Otaegi J.**

Euskal Herriko Unibertsitatea



Arima, izpiritua, adimena, kontzientzia, giza nortasuna, giza askatasuna: niri kontzeptuon historiaren aldetik eta egungo ikerketek planteatzen dituzten arazo filosofikoen aldetik tokatzen zait gaur hitz egitea. Ohar batzuk besterik ez.

## I

Ikus dezagun pixka bat zein den arazoa.

Gure herrian erlijio nagusia kristaua da; eta norbaitek federik ez eduki nahita ere, gurea kultura mendebaldar kristaua da milaka urtez geroan. Gure mentalitateko eta kulturako kategoriak, mundua zer den edo gizon-emakumea zer den interpretatzeko gure eskemak, kristauak dira.

a) Zer gertatuko litzateke kristautasunaz, eman dezagun, eta kristau fedez, zientziak orain arimarik ez dagoela erakutsiko balu? Arimarik ez badago, arimak egoteko zerurik eta infernurik ere inon ez dago; bizitza honetan arima salbatu beharrean zer ibilirik ez litzateke egongo; giza historian ez litzateke egongo jatorrizko bekatuak; jatorrizko bekatu gabe Jainkoak ez luke izango gizaki bilakatu beharrik; eta agur gure Gabonak eta Ostiral Santuak, infernuaren beldurrak eta bekatuaren kontzientzia txarra, kristau fede eta esperantza guztiak...

b) Baina erlijioa bost axola bazaigu ere, arima gabe gure egoera kulturala ez da askoz hobea, mendebaldarrak bagara behintzat. Ez bailirateke kapitulu erlijioso haiek bakarrik izango zentzurik gabe geratuko liratekeen usteak eta mintzamoldeak: hortaz, bada, etikarik ez dago? Arima edo izpiriturik ez badago, izan ere (h. d., dena materia bada), non geratzen da pertsonaren askatasuna, norbere ekintzen era-



bakimena, bakoitzaren erantzukizun moralak eta sozialak? Hori gabe, zer da errua? Eta, moralak ezezik, erru gabe zer egiten du mendebaleko sistema juridiko guztiak ere, bere tribunalekin eta zigorrekin? (Egundoko *gaiztakeriak* egin arren ez dira zigortzen makinak eta lurrikarak eta ekaitzak). Non txertatzen dira *giza eskubideak*? Zein sentido daukate, ez omen dagoen askatasun baten aldeko askatasun borroka politikoeak? Zein sentido, azkenean, giza historia guztiak? Arteak, erlijioek, maitasunak —egoismo hutsa askoz probetxugarriagoa denean; eta zein sentido dauka gizakiaren existentziak berak, zakur batenak edo udazkenean mendian tiroz botatzen den pasa-uso batenak baino gehiago? Baina hori ere ez da dena.

c) Guk gure autokontzientzia, gure duintasunaren ustea, gorputza eta izpiritua bereiziz formulatua daukagu gure kulturaren. Baina izpiritu edo arimarik ez badago, birtuak beharra daukagu zer garen. Zer da adimena, robot baten abilezia itzelezkoa besterik? Zertan bereizten dira gizakia eta edozein animalia, edo gizakia eta makina? Diferentzia gradual eta “tekniko” soila ote da gizakiaren eta robotaren artekoa? etab. Galderak eta galderak. Mendebalean galdera horiek, eta beste asko, arimarekin erlazioan pentsatu eta erantzun izan baitira milaka urtean zehar.

Beraz, aurreneko galdera, nik uste, galdera sinple honexek izan behar luke: zer ukatzen da arima ukatzen denean? Doi-doi zer da arimaren ukoak ukatzen duena? Izan ere, zer da arima guretzat? Oso ongi ulertu ezin duguna, nolabait imaginatu egin ohi dugu; eta askotan jendeak gure gorputzean organo bat gehiago bezala imaginatzen du arima: gibela edo behazunaren aldean, badugu arima bat ere hor nonbait, bakarrik izpirituala dena, hiltzen garenean gorputzetik aldegin eta airean zehar inork ikusi gabe norabait eskapatzen dena; batzuetan hildakoen arimak biziei agertu ere egiten dira gauzez eta sekulako izuikarak ematen dizkigute, etab. Herriaren holako irudipen eta usteak oso interesanteak izaten dira antropologoentzat, psikoa- nalista batzuentzat ere bai, eta guretzat ere errespetagarriak dira zalantza gabe. Baina denok ados izango gara, jokoan ez dagoela arimaren irudi —paradoxalki funtsean fisiko— bulgar hori.

Orduan, zer dago jokoan? Izan ere, segun nola ulertu, erlijioa ezezik, gure kultura osoa, autokontzientzia mendebaldarra dago jokoan. Zorritzarez galdera honi erantzun global eta garbi bat ez dago. Edo bakarrik hauxe: jokoan gure kultura tradizionalaren kontzeptu guztiak daude. Hau da, zaldia gerra egiteko, soroan edo mendian lan egiteko, garraio urbanorako, etab., gehiago erabiltzen ez bada, eta bai gure seme-alaben ekitaziorako soilik, zaldiaren kontzeptuak esanahia aldatu egiten du kulturaren. Zaldiak estepa iparrasiatikoetan edo kultura arabiarrean baino bestelako esanahia zuen kultura grekoan (mitologian jainkoen abere kuttuna zen, baina arte militar grekoan apenas izan du lekurik). Germaniarrentzat zaldia abere sakratua zen; euskal herri nekazarian zamari triste hutsa, ondo kastigatua. Eta arimak ere kultura guztietan, aro edo eskola filosofiko guztietan edo erlijio ezberdinetan, ez du beti esanahi bera ageri. Kontua, orduan, neurozientzia berrien aurrean oraindik arimaz hitz egiten jarraitzeak zentzurik batere ba al duen, edo zein baldintzatan zen-

tzurik izan dezakeen, izango da. Eta arima esaten dudanean, uler bedi emozioak, askatasun pertsonala, pentsamendua, irudimena, pertzepzioa, etab., nolabait *autonoma* kontsideratu ohi dugun gizakiaren bizitza mental edo izpiritual —ez abere-tiar— guztia.

## II

Ikus dezagun eztabaida hori.

Arimaren baiezenak bezala arimaren ezespenak bere historia dizu. Hasteko, zeru-lurretako ia dena dudatu eta eztabaidatu izan den Grezia zaharrea, arimaren existentzia ez dirudi sekula inork zalantzan jarri duenik. (Ohartzeko datua dugu hori, ongi atzemateko zein zen haien arimaren kontzeptua, dudaezinezkoa bihurtzen ziena haren existentzia!). Arimaren ukoa modernoa da, beraz. Zientziarekin etorri da.

1) Pentsamendua uko horretarako bidean ipini dutenak —haren existentzia beraiek ukatu gabe— enpirista ingelesak izan direla esango nuke; eta funtsean arrazoi epistemikoengatik egin dute, metafisika baztertzearen aldera, ez erlijioaren kritikagatik. Locke (1632-1704) arima substantzia bezala bururatzea kritikatu du: hain zuzen ez arima, baizik substantziaren kontzeptua begitantzen zaiolako metafisikoa eta funts-gabea (edozein gorputz material aplikatzeko ere). Substantzia zer den, zentzuen hautemapenik ez daukagu; eta, ondorioz, ez daukagu ideiarik ere. Beraz, substantzia izpiritual bat zer den (“that thinks and has power of exciting motion in body, by willing or thought”), inolako zantzurik, ez ideiarik eduki dezakegu. Kritika enpirista hori D. Hume (1711-1776) erradikalagotu du, baina eskeptizismo zuhur batean geratuz, gehiago gabe. (Kuriosoki, “pentsa dezakeen arima edo substantziaren ezmaterialtasun, sinpletasun eta zatiezintasunaren doktrina egiazko ateismoa da” haren iritzian!). XVIII. mendeko filosofo frantses sensista edo materialista handiek (Condillac, La Mettrie —*L’homme machine* izenburu esanahitsuko obra baten autore—, Helvetius, D’Holbach) eta ilustratu antieliztar kritikoenek ere (Voltaire, Diderot), beren zalantza guztiekin, arima edo izpirituaren beren moduko interpretazioak eman dituzte, baina haren existentzia ukatu ez dute inoiz egin.

2) Filosofian nik ezagutzen dudana lehen autore handia arimaren existentzia deblauki ukatzen, Schopenhauer da (1844ko obra nagusia). Schopenhaueren filosofia nahiko naturalista da. Hain zuzen, filosofiari ekin aurretik, Göttingengo Unibertsitatean medizina estudiatu zuen, eta bereziki interesaturik jarraitu zituen hango Medizina Fakultatean egiten ari ziren garunaren ikerketa berrienak. Eta, oker ez banago, arimaren uko espresoa orduantsu hasia da Alemanian jendarte akademikoan zabaltzen, gero popularizatzen, h. d., XIX. mendearen erditik aurrera,



zientziaren eta partikulazki medizinarene (edo Fisiologiaren eta Psikologia esperimentalaren) izenean egin ohi zena, agresibitate antirreligioso handiarekin askotan (J. Moleschott, C. Vogt, etab.). “Nerbio sistema bat daukagu, ez arima bat”, ebatzi du Nietzschek —Schopenhaueren jarraituna eta iraultzailea bera. Positibismo zientifista bezala, arimaren uko hau oso XIX. mendeko fenomeno bat izan da, zientzian baino zientziaren itxaropen haizejoetan oinarrituagoa. Bitxiki, erreakzioa ere medizina eta psikologia horietxetatik beretatik etorri da, kontraeraso izugarri baten eran: mende berriarekin (Freud, Jung eta psikoanalisiarekin) esan daiteke kultura publiko guztia arimaren inflazio batek inbaditu duela, giza zientziak bezala arte plastikoak eta musika edo literatura, moda urbano berriko espiritismo, parapsikologia, okultismo eta direnak diren beste arimaren arte edo negozio ezkutuen gorakadak irmotuta. Eta orain, beste mende batera pasatzeko zorian, uste dut arimaren inflazio horren aurkako erreakzio fasean gaudela berriro, arimari buruz piska bat zentzuzkoago hitzegin nahita —arimaren existentzia *ukatze*ko balitz ere.

3) Azkenean denak bat egiten ari direla ematen du, baina inportantea da arimaren gaurko eztabaidan sarbidea duten hiruzpalau modu edo joera bereiztea, batzuetan elkarren kontrarioak.

a) Lehena, orokorki esateko filosofikoagoa, Freuden eta Psikoanalisiaren Viena horretantxe bertan 30. urteetan sortutako erreakzioa, *Vienako Zirkuluaren* printzipio positibista logikoetatik eta Wittgenstein edo C. G. Hempel bezalakoan oharpen kritikoetatik G. Ryle Oxfordeko hizkuntz filosofoaren *The Concept of Mind*, 1949, estudio sistematikora datorrena. Hauen asmoa gorputz/arima bikoiztasunaren *pseudoarazoa*, hizkuntz analitikoki likidatzea da, dela arima edo izpirituarekiko proposizioak oro proposizio fisikalistetara erakarriz (Hempel), dela esaldi mentalistak kondukta edo jokaerazko deskribapenetara itzuliz (Ryle). “Ni *naiz*”, esaten dugu; baina “burua *daukat*”, naizen Nitasuna eta daukadan gorputza bereziz. Ohiko mintzaeran gorputza eta gogamenaren “bi mundu” berezi ohi badugu ere —diote hauen analisiek—, ez dago bi mundurik. Mundu bakarra gara.

b) Bigarren joera edo bultzada bezala Psikologia behaviorista edo konduktista aipatu behar da, kontzientzia baten suposizioa baztertu eta giza jokaera kanpoan estimulu eta erreakzio joko gisa beha daitekeenaren maila soilean ikertu nahi duena, barrutasuna edo introspekzioa eta holakoak —eta, beraz, arima— bazter utzirik (J. B. Watson, Skinner). Azterpide honen eredu, gogoratuko duzue, Pavloven zakurraren zen. 1930-1960 artean Amerikako eszena psikologikoan arras nagusi ibili dela, esan daiteke. Gero alde ezberdinetara eboluzionatuz eta korronte bezala homogeneitatea galduz joan da, ez ordea inpaktu handia eragin izan gabe psikozientzietan, batez ere haren aurka eta hura gaindituz etorri den psikologia kognitiboan.

c) Psikologia kognitiboa eta azken hogeitun urte inguruko direnak diren garunaren

ikerketa edo neurozientziak (garunaz sistema nerbioso zentral osoa ulertzen dugu hemen), nolabait konduktismoaren zuzenki aurka garatuak dira. Konduktismoak, esan bezala, debekatua zuen giza jokaera ideien asoziazio (mentalismo) bitartez azaldu nahi izatea, edo neuronen aktibitatearen bidez (fisiologismoa zeritzon negatiboki proiektu honi). Baina bi proiektuek bat egiten dute nolabait giza jokaeraren esplikaziorako arima/gorputz soluzio dualista tradizionala baztertu nahi erradikal batean. Alegia, esplikazio eredu monista bat bilatzen eta garatzen dute biek. Eta nire oraingo hautugaiaren aldetik behintzat erabakigarriena horrek dirudi. Hautematea, emozioak, oroimena, pentsamendua, nahimena, etab., giza portaera eta bereziki gizon-emakumearen jokaera *izpirituala* argitzeko ikerketa neurologiko berri-berri, oraindik agian apal baina promesaz beteriko hauetaz, bi mahaikideek hitzegin dizuete. Ikerketa hauek batez ere artikuluetan eta aldizkari berezituetan ematen dira ezagutzera, eta gehienbat oso ikergai neurobiologiko puntualak ukitzen dituzte. Psikofisiologiako bide honetan oinarritzko testu klasiko bat aipatzekotan, behar bada D. O. Hebb, *Essay on Mind*, 1980, liburua aipa daiteke, pionieroa izateaz gain planteamendu global bat eskaintzeko ausardia ukan zuena —gero mila kritika eta zuzenketa ikusi behar izan duena, noski.

d) Azkenik, logika formalaren eta konputazio teoriaren aurrerapenek ahalbidetu duten inteligentzia artifizialaren edo giza gogoia esplikatzeko modelo zibernetikoren hautabidea aipatu behar da (*Turingen makina*), funtzionala edo funtzionalista ere deitzen dena, eta modu sinplifikatu batean esateko, gorputz/arima arteko erlazioa konputagailu bateko hardware eta software (alegia, euskarri materialaren eta antolaera sistemiko edo logikoaren) artekoa bezala bilatzen du esplikatzea. Garuna konputagailu bat litzateke, hartzen duen informazioaren (input) birlaboraketaz giza *jokaera produzitzen* duena (output): eta izpiritutzat edo *egoera mentaltzat* hartu ohi direnak, ez lirerateke zinez makinaren egoera funtzionalak baizik izango. Horrela planteamendu substantzialistak (monistak nahiz dualistak) saihestu nahi dira.

### III

Eztabaidaren funtsa azken finean uste dut monismoaren eta dualismoaren arteko oinarritzko hautuan dagoela. Hipotesi diferenteen artean maila zientifiko hutseko gorabeheren eta diferentzien garrantzia baztertu gabe, kulturalki oro har behintzat oinarritzko hautu horrek dirudi problematikoena eta ondoriotsuena (erlijioarentzat, filosofiarentzat, etab.): ala ulertzen dugu gizakia bi substantziaren batasuna bezala, orain artean egin ohi zen legez (materia eta izpiritua, materiaren eta izpirituaren lege ezberdinen peko bezala hortaz, “bi erresumatako hiritar” bezala alegia, Kanten esamoldean), ala substantzia bakarra bezala ulertzen dugu (materia: eta orduan, goian esan diren katramila guztiak sortzen zaizkigu gure etikaren, zuzenbidearen, giza duintasunaren, askatasunaren kontzeptuetan, etab.).



Puntu honetan konklusio batera iristeko, bada: nik oso oker ikusten ez badut, egungo ikerbide eta autore ia denak planteamendu monistikora heltzen dira, gero monismoak forma aski ezberdinak aurkitzen dituen arren. Giza sentimentuak, pentsamendua, nahimena, hizkuntza, garunarekin eta garunarekin *bakarririk* esplikatzten dira. Beraz, era arrunt sinplean esateko, zientziarentzat arimarik ez dago (agian zientziarentzat bestela izaterik ere ez zegoenez).

Egia esan, honek konklusio gogorra ematen du mendebaleko tradizioan. Horren aurrean, bi estrategia diferente segi lezake reflexioak. Lehena eta errazena zientziaren mugak erakustea da, arimarentzat halere lekutxoren bat salbatzeko, estrategia franko ezaguna baita hau: Sixtina Kaperako pinturen analisi fisiko-kimiko batek gauza jakingarri asko agertuko liguke haien materiari buruz, baina analisi horrek ukitu ere ez du egiten haien funtsezkoena —haien izaera edo forma artistikoa eta hargatik sortarazten duten plazer estetikoa. Horrela a priori zientziaren bitartekoez inoiz atzeman ezingo luketen eremu batean kokatuko litzateke arima. (Uste dut ez dela etsenplu egokiegia: alegia, aipatu adibide horretan eta arima/garunaren ikerketaren kasuan *atzemateko* eta atzemanekin zer dagoen, diferenteak direla bietan arazoa eta arrazoiak. Oro har hemen onar genezake, halere, baliabide eta metodo zientifikoen ezaskitasun bat *arimaren arazoak* oro atzemateko —oraindik erabakitzeke daukagularik, batez ere, zer den arima!). Eta hortik joango litzateke hain zuzen bigarren estrategia: ikerketa hauek arrazoa dutela suposatuz, gure orain arteko autokontzientzia (hots, giza askatasunaren, pentsamenduaren, arimaren kontzeptu basikoak) birgogoetatzea.

Askotan imaginatu —eta Descartesez gero batik bat gogotik arrazoitu ere— dugun moduko arima bat, gorputzarekin zerikusirik ez duen substantzia edo entitate autonomoa, gorputzetik aparte eta gorputzaren nagusi, organismoa hil eta gero bere horretan biziraun dezakeena, etab., ez da ikusten onartu beharra dagoenik. Arima batetaz zentzu horretan —entitate edo gauza beregain batetaz bezala— ez dirudi mintza gaitzkeenik. Argi eta garbi esan: dualismo klasikoa, G. Rylez gero kartesiarra deritzotena egungo polemiketan, gure kulturaren zuek eta nik ezagutzen dugun gorputzaren eta arimaren errepresentazio eskuarra, honez gero baliagabetuztat eman genezake zientzian nahiz filosofian.

Baitezpadakoa da, ordea, arazo honetan ez ibiltzea materialismo mekanizistaren edo bulgarraren XVIII. edo XIX. mendeko kontzeptuekin (aurren-aurrena, oraingo fisikan batera ez dagoelako materiari XVIII. mendeko adieran; materiaren kontzeptu zahar hura energiarenean urtuta geratu da) edo orduko planteamenduekin, hots, izpirituaren eta materiaren artean ia Jainkoaren eta Satanasen artean bezalako elkartezintasun eta gerrak imaginatuz bezala, arazoan erlijioa nahastuz. (Errealitatearen osoa izpiritu eta materia terminoekin bete den tokian, bietako bat kenduz gero, beste terminoa errealitate osoa adieraztera pasatzen da eta, logikoki,



haren esanahia *eo ipso* zeharo aldatzen da). Beraz, esango nuke<sup>1</sup>, *ontologikoki*, zer izatearen edo munduan zer egotearen mailan, errealtatearen definizio mailan, *substantzia* modu bakarra dagoela; h. d., gure esperientziaren objektu izan daitekeen dena Natura da, Kantekin esateko, dena bat eta era batekoa. Ez dakigu nolako arima edo izpiriturik (ez-naturaririk) ez dago; eta baldin badago, giza adimenak ezin du haietaz ezer jakin ez ulertu. Hau nahiko garbi egon behar lukeen kontua da filosofian, Kant horrexez gero gutxienez. Besterik izango da, gero, *epistemikoki* edo errealtatearen esplikazio modeloaren mailan dualista izan ala ez, Naturako guztiaren batasun ontologikoa ukatu gabe. (Bere izatean Natura bata, gero, natur-lege tipoen arabera barruti ezberdinetan bereizten da ezagutzaren orduan: bat da lege mekanikoen unibertsoa, beste bat bizitzarena..., eta beste bat *garun/izpituarena*, nahi bada, bere lege guztiz bereziki). Izan ere, ezin da ezkutatu, giza jokaeraren esplikazioan gaur-egun ere badaudela teoria dualistak, zientifikoki nahiz filosofikoki garuna eta izpitu/arima guztiz bereizi beharra dagoela defendatzen dutenak alegia: W. Penfield eta R. Sperry neurologoak, edo R. Swinburne eta S. Toulmin filosofoak, etab., horien artean John Eccles neurobiologo Nobel Saridunaren eta Karl Popper filosofoaren dualismo interakzionista baita zalantza gabe ezagunena (ik. K. Popper/J. C. Eccles, *El yo y su cerebro*, 1980 — original ingelesa 1977koa). Baina, orain gu ari garen perspektiban, honek ez luke inolako problemarik izan behar. S. Priestek irakurleari abisatzen dion bezala (*Teorías y filosofías de la mente*, 1994), Popper agnostikoa da: “En la mente autoconsciente propugnada por Popper no hay nada de «ultramundano». Esa mente es lo que es cualquiera de nosotros, al menos desde que se despierta por la mañana hasta que se va por la noche a dormir”. Are, teoria funtzionalista batzuk bederen —H. Putnamek espreski hala aitortzen du bere proposamenaz— dualismoarekin eroso asko elkargarriak dira. Eta bitxiago irudi lezakeena, M. Bungek (*El problema mente-cerebro. Un enfoque psicobiológico*, 1985) salaketa hauxe egiten dio garuna/arima erlazioa konputagailuaren antzera esplikatzeko saioari: “(...) Habitualmente se pasa por alto que el modelo computacional de la mente, con la dicotomía que incluye entre hardware y software... está inspirado en el dualismo en lugar de subyacer el materialismo”. Eta behialako kontzeptu zaharkituekin operatzea gehitzen dio salaketari: “El maquinismo del siglo XVIII, que era una versión del materialismo vulgar, se ha transformado en una versión sutil del dualismo psicofísico”.

Dualismoak interes epistemiko diferenteak eta legítimoak ordezkatzeko ditzake. Konkretuki Eccles eta Popperen dualismoa kontrajarri zeri egiten zaiona, epifenomenismoa da. Epifenomenismoaren ustez, arima deitzen ditugun fenomenoek garuna dute kausa bakarra, eta beraiek ez dira ezeren kausa garunean: garunaren produktu hutsak dira hortaz. T. H. Huxleyren irudi arrakastatsuak dioenez, fabrika baten goiti gairatzen kea bezala da arima: fabrikako makinaren funtzionaketaren produktua, ez kausa. Materialismo honen aurka gaur egun asko dira materialistak, gogamenezkoaren autonomia efikaza eta *mentalaren* kausalitatea garunaren gain guztiz onartzen dutenak. D. Davidsonen materialista deklaratu du bere postura,

<sup>1</sup> Berezkuntza hau M. Bungek (ik. haren liburua gerorako aipatuan 28-31 orr.) ontologiko eta gnoseologiko artean egiten duenaren alderantziz egiten dut, ulerterrazagoa delakoan.

eta kontzientziari eta askatasunari giza jokaeran esplikazio bat eman behar zaiola esanez hasten da. Beste hainbeste egiten dizu Honderichek, honentzat determinismo zientifikoa bera (*kausagabetasun* kuantikoaren aurka) uztezinakoa askatasuna salbatzeko baita! Materialismo emergentista da M. Bungereen teoria, eta bere aurreneko lana berak materialismo eliminatiboa eta materialismo erreduktiboa deitzen dituenak porrokatzea da... Esan nahi dut, materialismo ezberdinak daudela gaur, horietako batzuek oso izpiritualistak ematen baitute. Eta horietako batzuek bederen —fisikalismoaren aurka, h. d., gertakari mentalak oro gertakari fisikoen terminoetan espresatzeko proiektuaren aurka— “gogamenezkoaren diferentzia ebidentea” gogotik errebindikatzen dute. (“El materialismo reduccionista —o fisicismo— es insostenible porque no consigue dar cuenta de los rasgos específicos que posee lo mental”, epaitzen du Bunge horrek berak). Horrela, esplikazio modelo dualista batzuen eta monista batzuen artean diferentzia filosofikoa ez dela ikaragarria, izaten dut batzuetan inpresioa...

Edonolakoak izan teoriak eta doktrinak —dualistak ala monistak—, azaldu beharra daukatena gaur ere, gizakiak beti —lehenago baliabide zientifiko eskasagoekin, hori egia— azaldu beharra eduki duen esperientzi mundu *psikiko* (edo arimako, mental) konplexu ukaezin horixe berbera da: zer diren pentsamendua, nahimena, kontzientzia, beldurrak eta itxaropenak, *arima* berban bildu duen errealtate ebidente eta berdenboran ulergaitza. Zientziaren zeregina ez baita errealtatea ukatzea —baizik esplikatzea.

## IV

Jarduera gogamenezko edo mentalean ariketa neuronalak berak itxura guztiz ez dira kulturarekin (hautzaroko artarekin, hizkuntzarekin, etab.) eta esperientzia kultural metatuarekin zerikusi gabekoak; beraz, garunak badu zerikusia gorputz osoarekin, eta *garen* gorputzak inguratzen gaituen gizartearekin eta inguru materialarekin. Garuna ere ez da *isolatuki* ematen. Gogamenezko edo mentala ez da gainerako errealtatetik bakandurik ematen (eta hori ahaztea —beharbada metodoaren premiaz ikerketak horretaraxe jotzen badu ere—, *arima* zaharrera itzultzea da hain zuzen!).

Are, garunera mugatuz orain: zein mekanismo neuronalek azaltzen ote du “goseak nago: ogia nahi dut”? Eta mekanismo berbera ote da gaztelaniaz, eta japonesez? Eta pertsona guztien buruetan berdina, goseak diferenteak direnean ere, eta ogiak ere bai, etab. etab.? Zein diferentzia psikoneuraletan espresatzen ote da kultura batean ederra den bera ez izatea beste batean, edo pertsona bati umorezkoa begitantzen eta barre eragiten dion bera gustu txarrekoa iruditzea eta inoren lotsa eragitea beste bati? Ekintza bat bera pentsa eta egin liteke norbaitenganako maite-minez, edo interes makurrez, obligazioz, lausengu asmoz, etab.: zeintzuk liriateke



diferentzia neuropsikikoak? Alegia, min bera ote dira gurea, ergel batena eta marztianoarena? (D. Lewis)... Gure irudimena hipotesiak egiteko libre utzita, nahi adina esplikazio asma liteke zalantza gabe holako arazoentzat hipotesian; baina segurue-  
na itaun modu hauek planteatzeak ere zentzu handirik ez du gaurko ezagutza zientifiko-  
en errealitate mailan oraindik.

“Argi urdina berdin gutxi azaldua gelditzen da nire aldetik dagokion bibradura-kopuruaren bitartez, nola judizio ukatzailea zerebroko prozesu baten bitartez”, argudiatzen zuen W. Diltheyk behiala XIX. mendeko materialista monista suharren aurka. Gaur ere, ordea, arrazoiak berdin-berdin balio du funtsean. Psikoziientziak haur txiki-txikiak dira oraindik: promesa handiak, baina errealitate oso xumeak. Arazoak dituzte jarduera mental elementalenak azaltzeko (ikustea, etab.), ariketa horien lekuak garunean doi-doi kokatzeko ere. Beraz, zientziok oraindik askotxo falta dute “arimaren” esplikazio bat mekanismo neuronalen terminoetan lortzeko. Kultura, historia, artea, termino neuronaletan planteatu ere egiteko, adibidez. Izan ere, ez dezagun pentsa dualismoaren arazoa metafisikoa edo hipotesi neurozientifiko efikazenaren arazoa bakarrik dela. Nola azaldu neuronalki milaka urteko erlijio baten fenomeno kultural, historiko, etab., guztiz konplexua? Nola esplikatu Beethovenen sinfonia baten konposizioaren misterioa; musika horrek denbora eta leku ezberdinetan plazer berdina, une berean pertzepzio izpiritual ezberdina, jende ezberdinari sortzea? Ez dut esango beti, zeren-eta beti ez dakigu zer den: baina neurozientziek (edo natur-zientziek) holakorik planteatu ere ahal izan arte, oraindik gizakiaren mundua ulertzeko azterketa kultur historiko, politiko, soziologiko, estetiko, *izpiritualen* beharrean izango gara urte askoan. Guk praktikan Egiptoko artea, Erromako historia, Greziako zientzia eta literatura ulertu nahi dugu, eta neurologiak ez digu piperrik laguntzen horretarako. *Haeckelen materialismo gordinak* sortutako polemiken inguruan behiala Diltheyk esaten zuen moduantsu aurkitzen gara, hortaz, ehun eta piku urte geroago ere oraindik: praxian, Goetheren biografia, haren grinak, gogoeta intelektualak eta sormen poetikoa, metaforak eta irudiak, “haren zerebroaren egituratik” bestela baino hobeto norbaitek esplikatzeko ez digun artean, *izpiritu zientziez* baliatu behar dugu!

Bestalde, alabaina —hau zen bigarren estrategia— arima, izpiritu, etab. kontzeptuak zerbitzu diferente gehiegitarako erabili izan direla historian, aitortu behar da, eta kontzeptu horien balioa erro-errotik birpentsatu beharra daukagula ere ez dago jada zergatik ez gogo hoberenez onartu. Izan ere, denboraren poderioan, eta arazoari itsasten eta metatzen joan zaion mila modutako eranskin pilarekin, azkenean biziki ulergaitza baita zer esan nahi den zehatz-mehatz, egunoro erabiltzen ditugun kontzeptu horiekin. Badu bi mila eta hirurehun urte ja, Aristotelek “arima zer den errepresentazio egoki bat erdiestea, eginkizunik zailenetakoa da” adierazten zuela. Harluxet Fundazioaren *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa-n* begiratzen dugu “arima”, eta zazpi esanahi diferente ditu; “izpiritu”, bost esanahi; “gogo”, lau. Hiztegi filosofiko bat hartuz gero, UZEIko *Filosofia Hiztegia* edo A. Lalanden



*Vocabulaire technique et critique de la philosophie*, adibidez, gauzak hainbat gehiago konplikatzan zaizkigu: hor arima begetatiboa eta pentsatzailea, kolektiboa eta individuala, are munduaren arima bat eta arima unibertuala, agertzen zaizkigu, eta arima sentitiboa eta sentisibea ere berezi egiten dira, kultura batzuetako arimen transmigratioaz edo berraragiztapenez ez mintzatzeko... Bestetik, horien balioa birpentsatu beharra daukagula printzipialki aitortu arren, kontzeptu horiek hainbat eta hain ezberdinak okupatzen baitituzte esparruak, barkatuko zaigu hemen guk ez konkretuki enplegatu nahi izatea, arimarik *gauza bezala ez* badago, zer egin behar den orduan, esate baterako, purgatorioko arimekin, edo gure kulturaren oso sartua dagoen beste hainbat eta hainbat halako ohitura (hiletak, etab.) edo antzeko problema larri nahiz txiki partikularrekin.

Arimaren kontzeptuak ezin igarri ahala antzinakoak eta ugariak ditu sustraiak, adaskapenak. Ez dakigu gauza handirik lehen gizona zein esperientziek eramana izango zuten kontzeptu horretara. Itxura guztiz, esperientzi mundu pertsonal nahiko konplexuak. Australiako aborigeneek eta Amazoniako indioek, Afrikako tribuek eta Siberiako populazioek, gizakiaren (eta animalien) arima edo izpirituetan denek sinesten dute. Beraz, orain 30 mila urte ingurutsu hasia izan daiteke gizakia bizidunetan arima ezagutzen. *Arima* adierazteko hitz primitibo guztiak, guk gaur arimarekin ulertzen duguna baino korapilotsuagoak eta askotan esanahi franko diferentekoak dira. *Psyche* grekoa edo *Néfesh* hebreoa (edo berdin *ruáj*, oso hurbilekoa esanahian) egoki samar itzultzeko hizkuntza modernoetan ez dago hitzik; eta, okerrago, haien definizio egoki samarrak ere ezin dugu eman, bitartean pentsatzeko modua bera arras diferentea delako gurea. (Pentsa ezazue euskarazko *gogoaren* konplexutasunean). Ez da derrigor gorputzari kontrajarritako *ezer (jateko gogoa)*, baina ez da gorputza soil ere. Propio gorputzari kontrajarrita Platonen filosofian aurkituko dugu. Homerok ez du gorputza/gogoa banatzen, ezta gizakiaren baitan autonomia edo subjektua litzatekeen gogoren bat suposatzen ere: euskaraz *gogoz lanegin* edo *gogotik aritu borrokan* bezalaxe esaten du (*psykhez eraso gudu*an), gizakiaren batasuna inoiz hautsi gabe. Arima *edukitzeak*, edo hobeto, arimadun (gogodun) izateak, ez du, beraz, giza-batasuna derrigor hautsi behar; arima eta gorputza oposatu behar.

Arima, izpiritua, sinonimotsuak dira guretzat orain. Jatorria ere ez dute elkarrengandik urrutikoa. *Spiritus*, izpiritua, arnasa da (“respiración”), bizitza. Guk latinetik hartuta arima esaten duguna (*anima*, airea, arnasa, “ánimo”), *Psyche* grekoaren itzulpena da. *Psyche* —halaber jatorrian hatsa, arnasa; *psychein*: arnasa hartu— aurrenik bizitzaren printzipioa da. Homero baitan *psykhek* ez dauka zerikusi handirik gure arimarekin -gero handik garatu bada ere gure arimaren kontzeptua-, eta ez da inoiz konfunditzen guretzat arimaren atributuak direnekin, *thymós*-ekin esaterako (adorea, *virtus*), edo *nóos*-ekin (sentimena edo), gero *Nous* edo ezagützaren printzipioa bilakatuko dena, latinez *mens* (adimena). Heraklito baitan arima *mugiarazlea* da (beraz, biziemailea), baina *ezagutzailea* ere jada bai une berean. Arimaren kontzeptua handituz eta konplexuagotuz doa. Pindaroren poemetan, aldiz, arima

kualitate moralen (adorea, etab.) iturria ere bera da engoitik. Eta horrela bidea presaturik dago Platonen arimaren autonomiaren metafisika handirako. Hau da, zientziaren, birtuteen, artearen edo ederraren tenplu hilezkorra, ez materiala, ariman kokatzeko.

Tradizio literario grekoan Homerogandik Pindaroganaino datorren garapide aberasgarri hori, Platonek ideia erlijioso orfikoekin korapilatu du. *Fedro* dialogoan mito alegoriko baten laguntzaz aditzera ematen denez, arima *zerutarra* da naturaz (alegia, ez iraungikorra: grekoek *ilargiaz gorako* izarren mundua iraungiezina eta *mugimendu perfektukoa* suposatzen baitzuten); beraz, mugimendua (bizitza) berez duena, gorputzari preexistitzen zaiona, gorputza hil eta gero ere hilezkorra; izpirituala eta eternoa, beraz, hemen beheko guztiari oposatuki. Zeruan barrena bi zaldi hegalarik tiratzen zuten gurditik istripu batez lurrera jausita, gorputz batean sartu beharrean aurkitzen da arima munduan. Orain, Platonek *Gorgia* dialogoan hitz-joko batekin esaten duenez, gartzelan bezala bizi da arima gorputzean (*soma*: gorputza; *sema*: gartzela). Azkenik, teoria platoniko osatuena arimaren naturaz, gero mendebaleko filosofia klasiko guztietan (kristau fededun, judu, ernazentista nahiz ilustratu razionalista) egundoko eragintsu izan dugun *Fedon* elkarriketan daukagu. Arima mundu honetan bizi deno, “gutziz bestelakoaren” minez bizi da (“Jainko-minez” bizi dela, ulertuko da San Agustinez gero); zerbait bere esentziaren arabera ezagutu nahi badugu, edota ederra bere garbitasun gutzizkoan dastatu nahi badugu, baztertu egin behar dugu zentzuen laguntza (hots, traba!) oro eta arimako begiez soil objektua kontenplatu (Descartesen programa gutzia ez da horixe baizik izango); gura badugu geure buruon osoki nagusiak izan, gorputza hilduratu egin behar dugu, gutxitu aszetikoki eta bertute izpiritualekin gainditu. Gorputzaren eta arimaren oposizioa erabatekoa da.

Elizako Gurasoak deitzen direnak, kristautasunaren aurreneko intelektualak alegia, kristautu diren filosofo *grekoak* edo helenistak izan dira kulturalki. Horiekin kristautasunarentzat eta, beraz, mendebaleko kulturarentzat nagusitu den gizakiaren ikuspegia gorputz/arimazko dikotomiadun platonikoarena izan da. Hori da guk erlijiosoki nahiz kulturalki jaso dugun ohiko eskema. Mereziko du, bada, tesi gailen labur batzuetan hori biltzea:

- 1) Gizakia gorputz ETA arimaren batura da (bi substantzia ezberdinena): arima izpirituala, hilezkorra, gorputzagandik menpegabea, are gorputzaren nagusia da.
- 2) Bizitzaren printzipioa, bereziki ezagutza edo zientziarena eta moralarena, beraz *nahimen edo hautamen librearena, arima bakarrik da.*
- 3) Arimaren jardun teoriko nahiz moral libre-librerako, gorputza, laguntzarik baino gehiago, eragozpena da.

Ohartxo harrigarri bat orain: filosofiaren eta batez ere Elizaren laguntzarekin mendebalean zeharo finkatu den ikuspidea hori bada ere, Eliza Katolikoaren dok-



trina ofiziala ez da hori. Elizak XIV. mende hasieran, Vienneko Kontzilioan, bere ofizialtzat hartu duen arimaren doktrina S. Tomasena baita. Eta S. Tomas, ezagun-ki, ez da platonikoa, aristotelikoa baizik (arima gorputzari oposatua bezala ez, baina gorputzaren forma bezala ulertzen duena, gorputzarekin bat-bat egina hortaz — pitxar bat bere materia eta forma batera den bezala, eta biak batera gabe ezer ez, buztin pila informe hutsa, halaxe gizakia ere). Halere mendebalean ikuspegi dikotomikoa, nagusitu ezezik, aipatu Kontzilio hori baino geroxeago hain zuzen, Modernian sartu ahala alegia, arras erradikaldu bada, batez ere filosofiaren laguntzarekin orain (Descartes), arrazoiak teorikoak izan dira, eta politikoak eta sozialak izan dira orobat. Hemen ez daukagu, ordea, zientzia modernoaren eta razionalismo kartesiarraren paradigmaten sorrerako baldintzei buruz luzatzerik; ezta kritikoki burgesia gazte gorakorraren autokontzientzian sakontzerik ere, bere independentzian, bere askatasun eta ahalmen mugagabeetan fededun harro, *izpiritualista*, h. d., indibidualista (biziki interesagarria, ik. M. Horkheimer, “Egoismo y movimiento liberador. Contribución a una antropología de la época burguesa”, in: *Teoría Crítica*, 1990).

Guretzat honek esan nahi duena da, batetik, klase ekonomiko berrien eta zientzia modernoaren ikuspegiak Elizari berari gainezarri egin zaizkiola denborarekin; bestetik, aldiz, gorputz/arima erlazioa esplikatzeo guk ezagutzen dugun eskema dikotomiko erradikala ez dela bakarria mendebaleko tradizioan. S. Tomas, tradizio platonikoa utzi eta, mendebale kristauan arabiarrengandik eskuratu berria den filosofia aristotelikoa pentsamendu kristauarentzat egokitzen saiatu da.

Aristoteleren doktrina arimari buruz franko nahasia eta zaila da. (Platonen planteamendu dikotomikoa erraza eta garbia bai, baina esplikatu ezin duen arazo pila batekin aurkitzen baita —funtsean gorputz/arimaren arteko elkarrekintzaren arazoekin). Sinplifikatuz: 1) gorputza eta arima ez dira bi substantzia, baizik substantzia bakarraren materia eta forma (Platonen aurka). 2) Arimako jarduerak derizkiegun horiek hain diferenteak izanik, arimak parte edo funtzio diferenteak izan behar ditu, gorputzean ere parte diferenteak okupatzen dituztenak (edo hiru arima diferente daukagu, nahiago bada): begetatiboa (generazio, elikapen eta hazkunderaren printzipioa), sentsitiboa (zentzuen eta mugimenduarena) eta intelektiboa (ezagutzaren edo adimenarena). Hemen arazo txiki bat dago: nire bazkariaren liseriketa neuk bakarrik egiten dut. Baina nik hitzegiten dut eta zuek ulertu egiten duzue; nire kultura lagunen, maisuen, arbasoen emaria dut, nirea bakarrik ez da, oraingoa bakarrik ere ez, materiazko hesi guztien gainetik hedatzen da denboran eta espazioan —hots, materiari lotua eta harekin (forma bezala) bategina ez dago, *jainkozkoa* da! Adimenezko arima izpiritual, *nous* edo *pneuma* hau, indibiduala ote da? Ala adigarritasuna bezain kolektiboa, unibertuala? Orduan, gure arima indibidualak hilkorrak izan litezke gorputzarekin batera, eta arima unibertal hori hilezkorra: Averroes. (Arazo horietxengatik hartu du Elizak hain zuzen S. Tomasen *soluzioa*, horrela base aristotelikoaren gain ezarriz bere planteamendua nolana ere, ez base

platonikoaren gainean). Baina aristotelikoa ere ez da gorputz/arima arazoa soluzionatzeko Grezian egin diren saioretan aurkitzen dugun eredu filosofiko bakarra. Demokrito eta Epikuro ere badago Grezian: horiek atomistak dira; esan nahi du, munduan izanik duen errealitate guztia atomo fisikoez osatua dela azken finean. Arima atomo bereziki fin-fin eta subtil ez osaturiko, *suaren antzeko* materia izango litzateke. Jainkoak ere atomo partikular batzuek osaturiko izakiak dira Epikurorentzat. Epikuro hau adibide ederra da, nola filosofian materialista izan daitekeen eta arima, giza askatasuna, jainkoen existentzia, etab., ez ukatu. Adibide modernoago eta kurioso bat Hobbes da: filosofo ingeles hau materialista erradikala da, eta izugarritzko beldurra zien gauze agertzen diren hildakoen izpirituei!

Kontuak kontu, guk materialismoa kristautasunarekin elkartezina dela entzun izan dugu beti; baina ezusteko galanta eraman genezake agian, materialismoa propioki razionalismo modernoarekin bakarrik dela elkartezina, kristautasunarekin baino gehiago, ikusiko bagenu. (Hala Kantek ezin du ulertu —KrV A 475, B 773— Priestley teologo eta erlijio irakasle materialista; eta Moderniaren hastapenetan bertan, Descartesen aurrez aurre Gassendi materialista dago, apaiz katoliko atomista eta epikurotarra). Ikuspuntu biblihora paseaz, denok ezagutzen duzue gizonaren kreaioaren kondaira: “Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudurzuloetan bizi-arnasa putz egin zion, eta gizona bizidun bilakatu zen” (Gen 2, 7). Hori da Bibliak dioena. Alegia, guri esplikatuz zaigunez, lur-hautsez gorputza egin zuen eta sudurzuloetatik putz eginez arima eman zion. Hori da hori Biblia hebreoa begi grekoekin irakurtzea! (Begi platoniko edo kartesiarrekin, hobeto). Bibliak dioen dena, “gizona bizidun” bilakatu zela da, gorputz eta arimarik ezertarako berezi, eta gutxiago kontrajarri, gabe. Gizaki biblikoa bat-bat da dena bere baitan; ez dago ebakia (ez dut esango materia hutsa dela, aldamenean izpiriturik ez duelako, bera materia *huts* izateko). Bitxia hain zuzen: gure mintzairetan esaera ohikoa da, gizakia bere oso-osoan adierazteko, *gorputz eta arima* esatea. (Gaztelaniaz halere, *en alma y cuerpo*, euskaraz baino askoz korrienteagoa da: euskaraz, nik uste, ezin izan du hainbeste inplantatu, gure artean arimaren kontzeptu berriak, ia eskusiboki erlijiosoak, ez duelako *gogo* arkaikoa desbankatzea erabat lortu). Mintzaira hebreoak biziki maite ditu holako esaera bipolarrak, horixe baitu osotasuna adierazteko bere espresabide normala (*zeru-lurrak*, etab.). Logikoa izango da, hortaz, *gorputz eta arima* esaera maiz aurkitzea. Begira, bada: Itun Zahar oso-osoan espresio hori ez da behin bakarrik ageri. Eta ezin da agertu: arima edo *néfesh* hebreoak bere lehen eta oinarrizko adieran eztarria edo zintzurra, samako zuloa, esan nahi duelako; gero, hortik, nahiera, desira, gosea, edo euskaraz bezalaxe doi-doi *gogo*a. Osatu egiten baitu horrek gizaki gorputzuna bere barruan dena, ez hari ente autonomo gisa kanpotik kontrajarri. Gizaki biblikoa ez da dualista. (Gaztelaniazko mintzaira erlijioso *Dios refresca mi alma, apaga mi sed* bezalako esaldiz beterik dago: *gogo* simple bat ez daukatelako asmatzen dituzten erreduplikazio alferrez!).

Itun Berrian kontua ez dago hain garbi —aurrena, grekoz idatzita dagoelako



Itun Berria. Eta pasarte asko eta askotan, testuak erabiltzen duen psykhe grekoak esanahi hebreoa duelako. Kontatzen da, Inazio Loiolakoak eta Xabierrek Parisen topo egin izanik estudiante bezala, Loiolakoak esaten omen ziola: “Xabier, qué importa ganar todo el mundo, si al fin pierdes tu alma?” Seguru asko horrela esango zion. Itzulpen modernoek ja ez dute horrela itzultzen. Adibidez, *Elizen arteko Biblia* euskaraz oso itzulpen moderno eta ona da, honelaxe ematen du (Mt. 16, 26): “Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere *bizia* galtzen badu? (nire azpim.)” (Bizia baita psykheren estreinako esanahia, ez gure arima!). Halaber: “bere *bizia* («ten dé psychén autou»; Vulgatan: «animam suam») gorde nahi duenak galdu egingo du; bere *bizia* niregatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du”, etab. Beste pasarte batzuetan soluzioak zailagoa ematen du; adibidez, testu bihurri bat apropos hautatzeko, (erdaraz) “no temáis a quienes matan el cuerpo, pero no pueden matar el alma” (Mt. 10, 28): hemen “gorputza/arima” oposizioa espresoa baita eta gainera oposizio bikoitza dago: «soma/psykhe» (Vulgatan: «corpus/anima») eta “hil/zer?”, «apokteínai/psyke» (Vulgatan: «occidere/anima»). Ezin da itzuli, “gorputza hiltzen dute, baina ezin dute *bizia* hil”... Eta halere euskal itzultzaileak erradikal jokatu du eta, arima itzultzea hemen ere ez onartzeko, “hil” aditz neutralagoaren itzulpena eraldatu du: “Ez izan beldurrik gorputza hil bai («apoktennónton»), baina *bizia* hondatu («apokteínai») ezin dutenei”. Izan ere, zer da hil ezin dutena? Ez da *arima*. Da, apostoluen entrega absolutua berri onari, leialtasuna ebangelioari, “bizi” ebangelikoa hori baita!. “Ez izan beldur: leialtasun hori ez dizue inork hilgo, eta hori da bizi (izpiritual, erlijioso)a”. Aski adibidez. “Elizen arteko Bibliak” azken aldera badu Aurkibide Analitiko xehe-xehe bat (kontzeptu bibliko nagusi guztien erreferentziekin), eta “Bibli Hiztegi” bat ere bai, Bibliako hitz eta gai ei buruzko oinarritzko argibideak emateko. Harrituta geratuko zarete: ez batean eta ez bestean aipatzen da “arima” aipatu ere.

Arima ez da kontzeptu biblikoa. Gu kontzeptu grekoak, biblikoak, Erdi Arokoak, zientzia modernokoak, denak nahasten ari gara. Eta gure kultura kristaua edo mendebaldarra besterik ez dena, mendebaldarra ez jatorriz den eta ez zergatik izan daukan erlijio kristauarekin berdintzen dugu. Jesus Nazaretekoaren garaian nahikoa influentzia helenista zegoen Palestinan; beraz, ez daukagu segurantzia oso-osoarekin baieztatzerik. Baina ia seguru egon gintezke, Jesus izeneko erromatarrek hil duten juduak, sekula ez duela pentsatu berak inon arima bat zeukanik, edo inork daukagunik. Eta pentsatu badu, segurua da, ez zela arima dualista bat.

Hasierako galderetara etorritz. “En una ciencia perfecta, la palabra «mente» y la palabra «materia» desaparecerían ambas y quedarían sustituidas por leyes causales concernientes a los «sucesos»”, idazten zuen B. Russellek aspaldi samar. Puntu ideal agian eskurazekin hori eskuratu arte itxaroten egoteke, bitartean, nik uste, arima zer ez *den*, edo guretzat jada zer ez daukan izaterik, ikerketa filosofikoak, antropologikoak, historikoak, teologiko eta biblikoak berak, ari zaizkigu erakusten. Arima zer *den*, egungo gizakiak zientziaren eta batez ere neurobiologiaren laguntzaz bila-

tzen du erantzuna. Lehen izpiritutik esplikatzen genituen gorputzaren mugimenduak; orain gorputzetik nahi dugu esplikatu izpiritua. Erantzuna oraindik urruti ikusten da, baina ez dio axola. Bilaketa bideak zilegizkoa ematen du.

